

De Rerum Natura



Zaldieroa@zaldieroa.com



## Miel Joxe Astarbe ◊ 'Sagardoaren hiztegia'-ren egilea

Txotx denboraldian murgiltzeko bide egiten du 'Sagardoaren hiztegia' liburuxkak; 500 hitz bildu eta haien definizioak idatzi dituzte.

# «Sagardoari lotutako hitz asko galdu dira; horiek ere bildu ditugu»

**Ekaitz Agirre** Astigarraga

«Sagarrondoaren fruitua, biribila, mami sendokoa eta urtsua; jateko edo sagardoa egiteko erabiltzen da». Miel Joxe Astarbek sagardoa ekoitzi ahal izateko ezinbestekoa den sagarrak emandako definizioa da, *Sagardoaren hiztegia* liburuaren azaletik hartua. Urte luzez sagardoarekin lotura duten hitzak biltzen jardun du Astarbek, eta osatutako zerrenda Astigarragako Sagardoetxearen eskutik argitaratu du. Urkiri Salaberria izan du bidelagun hiztegia lantzen. Sagardo denboraldia abiatu berri dela baliatuta, sagardogintza ardatz duten hitzen ondarean sakontzeko modua da hiztegia. Bostehun hitz guztira, tartean Antton Olariagaren ilustrazioek osatuta.

Hiztegia ez du egun batetik bestera hezurmamitu. *Astigarraga* aldizkarian sagardoari lotutako ehun hitzen zerrenda argitaratu zuen Astarbek, 1983an. Manuel Astarbe aitonak eta Jose Maria Astarbe aitak erakutsitako hitzak ziren gehienak, eta sagar mota desberdinen zerrenda ere bazekarren. Orduko hitzen bilduma txiki geratu zen urteen joan-etorriarekin. Gau eskoletan lantzeko zerrenda berri bat osatzera proposatu zioten AEKkoek,

eta horrek bultzatuta berrekin zion bildumari. Ia urte eta erdiko lana izan du, batean eta bestean arakaturik; liburuetan, aldizkarietan, herriz herri eta baserriz baserriri. Lan horren guztiaren emaitza da *Sagardoaren hiztegia*. «Bildutako hitz zaharretako asko ez dira erabiltzen, galdu egin dira. Etnologiak terminologia berria sortu du azken 30 urteotan, eta horiek ere aintzat hartu dituzte», argitu du Astarbek. Hitz berrietako asko, ordea, arrotzak zaizkio. «Aurtengo sagardoa freskoa dela esaten ari dira. Zer ote da hori? Etnologo-

**«Aurtengo sagardoa freskoa dela diote, baina sagardoa beti izaten da freskoa»**

**«Herri bakoitzean hitz bat erabiltzen da gauza berberari erreferentzia egiteko»**

ek sortutako hitza da, sagardoa beti baita freskoa. Hitz hori, adibidez, ez dut sartu». Hitz bat gehiago hiztegiari gehitzeko.

Eta ez da bakarra. Hiztegia kaletan dagoenetik beste hamar edo hamabiren berri izan du egileak. «Zapiain sagardotegiak galde-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

tu zidaten ea *agostoketak* hitza sartu ote nuen. Sekula entzun gabea nuen nik, eta sagardoa egiteko hasteari erreferentzia egiten dio hitzak; 'agostoketan hasi beharra zio' esaten zuten, abuztuan sagardoa egiten hasi behar zela adierazteko», argitu du Astarbek. Astigarragan eta inguruetatik herrietan ez ezik, Mutrikun eta Hondarribian erabiltzen dituzten hitzak daude *Sagardoaren hiztegia*-n. «Herri bakoitzean hitz bat erabili daiteke gauza berari erreferentzia egiteko, eta Astigarragan bertan ere auzoen artean aldeak ikusi dituzte».

### Galdutako hitzak

Hiztegia bost ataletan banatu du, eta haietako bakoitzak sagardoa ekoizteko prozesuaren une bati egiten dio erreferentzia. «Sagarrak bost hazi izaten ditu normalean, eta horrekin ere badu lotura», zehaztu du. Bostehundik gora hitz bildu ditu hiztegian, eta, definizioekin batera, Antton Olariagaren marrazkiek biribildu dute lana. Lehenengo atalak *Sa-*

*gastia, Sagarra, Biltzea* du izenburua, eta prozesuaren lehen zati horri lotutako terminoetako erreferentzia. Bigarrenari *Dolarea, Patsa, Zanpatzea* deitu dio, hirugarrenak *Upela, Muztioa,*

*Irakitea* titulua du eta laugarrenak sagardoa edateari egiten dio erreferentzia. *Herri baten erroak* du izena hiztegiaren azken atalak.

Dolarea, zipotza, upelategia, upela... mutil koxkorra zenetik gertukoak ditu Astarbek. «Hitz asko galdu egin dira, eta galduko dira. *Kaxkabel eta fuertatxo*, adibidez». Horregatik, euskarazko ondare horren lekukotza ere bada hiztegia. Kaxkabel «daleek sagardoari ematen dioten izena» da; fuertatxo, berriz, «patsaren azken estualdietan isurtzen den zuku». Beste hitz askoren esanahia bat hartu du. Ez da galduko *txotx* hitza», dio. Baserriko semea izaki, upel artean jolas eginda ikasi zituen izen gehienak. «Komeniko litzateke Astigarragarekin egin dugun gisan, beste herri batzuetan ere antzekoa egitea», iritzi dio Miel Joxe Astarbek.

### ↓ Sagardoaren hiztegia



- **Egileak.** Miel Joxe Astarbe eta Urkiri Salaberria.
  - **Orrialdeak.** 84.
  - **Ilustrazioak.** Antton Olariaga.
  - **Edizioa.** Sagardun Partzuegoa.
  - **Salneurria.** 5 euro.
- sagardoetxea.com* webgunean edo Sagardoetxean.